




**Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



Mi 10 Lite 5G  
Erabiltzailearen eskuliburua

EU



# Eskerrik asko Mi 10 Lite 5G aukeratzeagatik


Luze sakatu pizteko botoia, gailua pizteko. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei gailua konfiguratzeko.

Informazio gehiago lortzeko, bisitatu gure webgune ofiziala: [www.mi.com/global/service/userguide](http://www.mi.com/global/service/userguide)

## MIUI

Mi 10 Lite 5G gailuak MIUI du aurrez instalatua, Androiden oinarritutako gure sistema eragile pertsonalizatua. Eguneraketak sarri egiten ditu, eta funtzio erabilerrazak ditu, munduko 200 milioi erabiltzaile aktibok baino gehiagok egindako iradokizunei esker. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [en.miui.com](http://en.miui.com).

## SIM txartelaren erretilua:



## SIM dualari buruz:

- SIM txartel dualak onartzen ditu operadore-mugarik gabe, eta 5G konexio indibiduala edo 4G bikoitza ①
- nano-SIM txartel dualen erretenak onartzen ditu; bi txartelak edozein konfiguratu daitezke txartel nagusi gisa.
- Bateragarria da 5G/4G+/4G/3G/2G SIM bakarrekin
- Bateragarria da 4G+/4G/3G/2G SIM dualarekin
- HD VoLTE deiak onartzen ditu SIM dualarekin ②

Oharra ①: 5Grekiko bateragarritasuna telekomunikazio-operadore lokalaren mende dago; baldin eta 5G aktibatuta badago txartel nagusian, bigarren txartela ez da erabilgarri egongo; softwarearen hurrengo eguneratzeetan 5Grekiko bateragarritasuna sartuko da txartel nagusirako eta 4G/3G/2G bigarren txartelerako (txartel dualak daudenean).

Oharra ②: VoLTE zerbitzuaren erabilgarritasuna telekomunikazio-operadore lokalaren sarearen eta zerbitzuaren ezarpenaren mende dago.

- Ez sartu SIM txartel ez-estandarrik SIM txartelentzako erretenean. Kalteak eragin ditzake SIM txartelentzako erretenean.
- OHARRA: Ez desmuntatu gailu hau.

## WEEE



Produktu hau modu seguruan botatzeko, neurri bereziak hartu behar dira. Ikur honek adierazten du, EBn, produktua ez dela bota behar etxeko ohiko hondakinekin.

Hondakinak desegoki botatzeagatik ingurumenari eta gizakien osasunari kalterik ez eragiteko eta baliabide materialen berrerabilpen jasagarria sustatzeko, birziklatu arduraz.

Gailua modu seguruan botatzeko, erabili bilketa- eta itzultze-sistemak edo jarri harremanetan produktua erosi zenion saltzailearekin.

Gure Ingurumen Deklarazioa ikusteko, jo, mesedez, esteka honetara:

[www.mi.com/en/about/environment](http://www.mi.com/en/about/environment)

## KONTUZ

BATERIA DESEGOKI BATEKIN ORDEZTUZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, HARTU AINTZAT JARRAIBIDEAK.



Entzumenari kalterik ez egiteko, ez erabili gailua bolumen oso altuan denbora luzez.

Segurtasun-informazioa eta neurri osagarriak esteka honetan dituzu: [www.mi.com/en/certification](http://www.mi.com/en/certification)

## Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

Irakurri hemen jasotzen den segurtasun-informazio guztia gailua erabiltzen hasi aurretik.

- Baimendu gabeko kableak, egokigailuak edo bateriak erabiliz gero, suteak, leherketak edo bestelako arriskuak gerta daitezke.
- Zure gailuarekin bateragarri diren osagai baimenduak bakarrik erabili.
- Telefonoak behar bezala funtzionatzeko tenperatura-tartea hau da: 0 °C - 40 °C. Aipatutako tenperatura-tarte horretatik gora edo behera erabiltzen baduzu gailua, kalteak eragin diezazkiokezu.
- Zure gailuak bateria badakar berekin, ez saiatu hura ordeztzen, kalterik ez eragiteko bateriari edo gailuari berari.
- Gailua kargatzeko, gailuarekin emandako eta baimendutako kablea eta egokigailua bakarrik erabili. Beste egokigailu batzuk erabiliz gero, suteak edo deskarga elektrikoak gerta daitezke, edo kalteak jasan ditzakete gailuak edo egokigailuak berak.
- Kargatzen amaitu ondoren, deskonektatu egokigailua gailutik, baita korrontehargunetik ere. Ez edukia gailua kargatzen 12 ordu baino gehiago.
- Birziklatu bateria, eta, botatzekotan, ez bota etxeko ohiko zaborrarekin batera. Bateria behar bezala erabiltzen ez bada, sute bat edo leherketa bat gerta daiteke. Gailua, bateria eta osagaiak botatzeko edo birziklatzeko, jarraitu tokiko araudiei.
- Ez desmuntatu, ez kolpatu, ez zanpatu eta ez erre bateria. Bateria deformatuta badago edo kalteren bat badu, utzi erabiltzeari berehala.
  - Ez eragin zirkuitulaburrik baterian, horrek gehiegi berotzea eta erredurak edo bestelako zauriak eragin bailitzake.
  - Ez jarri bateria oso tenperatura altua dagoen lekuetan.
  - Gehiegi berotuz gero, leherketaren bat gerta daiteke.

- Ez desmuntatu, ez kolpatu eta ez zanpatu bateria, horrek bateriako likidoa jariatzea edo bateria gehiegi berotzea edo lehertzea eragin baitezake.
- Ez erre bateria, horrek suteak eta leherketa eragin bailitzake.
- Bateria deformatuta badago edo kalteren bat badu, utzi erabiltzeari berehala.
- Erabiltzaileak ez du bateria kendu edo aldatu behar. Fabrikatzailearen konponketa-zentro baimendu batek bakarrik desmuntatu edo konpondu behar du bateria.
- Eduki ezazu gailua lehor.
- Ez saiatu gailua zure kontura konpontzen. Gailuaren atalen bat ez baldin badabil behar bezala, jarri harremanetan Mi-ren bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin, edo eraman gailua konponketa-zentro baimendu batera.
- Beste gailu batzuk konektatzeko, jarraitu haien eskuliburueta jarraibideei. Ez konektatu gailu honekin bateragarria ez den gailurik.
- AC/CC egokigailuen kasuan, harguneak ekipotik gertu egon behar du, erraz iristeko moduko tokian.



## Segurtasun-neurriak

- Errespetatu itzazu, egoera edo inguru espezifikoean, telefono mugikorraren erabilera mugatzen duten lege edo arau aplikagarri guztiak.
- Ez erabili telefonoa leku eta egoera hauetan: gasolindegietan, atmosfera leherkorra dauden lekuetan, leherketak gerta daitezkeen lekuetan, hala nola zerbitzuguneetan, itsasontzi-bizkarren azpian, erregaiak edo produktu kimikoak lekualdatzeko edo gordetzeko instalazioetan edo aireak produktu kimikoak edo partikulak (alea, hautsa edo hauts metalikoa) dituen lekuetan.  
Kasu egin haririk gabeko gailuak (hala nola zure telefonoa eta beste irrati-ekipo batzuk) deskonektatzeko dioten seinaleei. Itzali zure telefono mugikorra edo haririk gabeko gailua leherketa-eremu batean bazaude edo "bi noranzkoko irrati-aparatuak" edo "gailu elektronikokoak" itzaltzeko agindua ikusten baduzu, izan daitezkeen arriskuak saihesteko.
- Ez erabili gailua ebakuntza-geletan, larrialdiko geletan edo erietxeetako arreta intentsiboko unitateetan. Bete, beti, ospitaleetan eta osasun-zentroetan indarrean dauden arauak. Gailu mediko bat baldin baduzu, kontsultatu zure medikuarekin eta gailuaren fabrikatzailearekin, ea arriskurik dagoen telefonoak gailu medikoaren funtzionamendua eragozteko. Interferentziarik egin ez dezan taupada-markagailuarekin, utzi 15 cm-ko distantzia gutxienez telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean. Horretarako, telefonoa taupada-markagailuaren kontrako belarrian erabil daiteke, telefonoa bularreko poltsikoan eraman gabe. Ekipo medikoarekin interferentziarik ez egiteko, ez erabili telefonoa audifonoetatik, inplante koklearretatik edo antzeko gailuetatik hurbil.
- Errespetatu aire-segurtasuneko arau guztiak, eta itzali telefonoa hegazkinean, beharrezko denean.
- Ibilgailu bat gidatzen ari zarenean, erabili telefonoa indarrean dauden trafiko-legeak eta -arauak kontuan hartuta.
- Ekaitza denean, tximistaren batek jotzea saihesteko, ez erabili telefonoa kanpoan.
- Telefonoa kargatzen ari baldin bada, ez erabili deiak egiteko.
- Ez erabili telefonoa oso leku hezeetan; esate baterako, bainugelan.  
Erabiliz gero, deskarga elektrikoak, lesioak edo suteak gerta daitezke, eta kalteak jasan ditzake kargagailuak.

## Segurtasun-deklarazioa

Mesedez, eguneratu telefonoaren sistema eragilea; horretarako, erabil ezazu sistema eguneratzeko funtzioa, edo zoaz gure saltoki baimendu batera. Softwarea eguneratzeko beste bideren bat erabiltzen baduzu, besteak beste, gailuari kalte egin dakiok, datuak galdu ditzakezu eta segurtasun-arazoak izan ditzakezu.

## EBren erregelamenduak

### Irrati-ekipoen direktibarekiko adostasun-deklarazioa



Honen bidez, Xiaomi Communications Co Ltd-ek adierazten du GSM/GPRS/EDGE/UMTS/LTE/5G NR, bluetootha eta Fi M2002J9G wifia dituen telefono mugikor honek betetzen dituela Ekipo irrati-elektrikoei buruzko 2014/53/UE Direktibaren oinarritzko baldintzak eta beste xedapen batzuk. EBren adostasun-deklarazioaren testu osoa Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: [www.mi.com/en/certification](http://www.mi.com/en/certification)

## Irrati-maitasunen esposizioari buruzko informazioa (SAR)

Gailu honek betetzen ditu kontrolik gabeko populazio orokorraren/esposizio ez-kontrolatuaren absortzio espezifikokoaren tasaren (SAR) mugak (10 gramoko SAR lokalizatua buruan eta enborrean; muga: 2,0 W/kg). Muga hori 1999/519/EE Kontseiluaren Gomendioan, ICNIRP jarraibideetan eta RED zuzentarauan (2014/53/EU Zuzentaraua) zehazten da.

SAR proban, gailua potentzia-maila ziurtatu handiengan transmititzeko konfiguratu zen, probatutako maiztasun-banda guztietan.

Irrati-maiztasunekiko esposizioa simulatzen duten posizioetan jarri zen: buruaren kontra, tarterik gabe, eta gorputzetik gertu, 5 mm-ko tartearekin.

Gorputzean erabiltzeko SAR betetzea unitatearen eta giza gorputzaren arteko 5 mm-ko tarte batean oinarritzen da. Gailu hau gorputzetik gutxienez 5 mm-ra eraman behar da, irrati-maiztasunekiko esposizio-maila adierazitako neurrian edo apalagoan egongo dela bermatzeko. Gailua gorputzetik hurbil finkatzean, gerrikorako klip bat edo osagai metalikorik ez duen zorro bat erabili behar da, hartara gailuaren eta gorputzaren artean gutxienez 5 mm-ko tarte bat uzteko. Gorputzean eramaten den eta metala duen ezein osagarrirekin ez da frogatu edo ziurtatu RFaren eraginpean egotea betetzen dela, eta halako osagarriak erabiltzea saihestu behar da.

## Ziurtapen-informazioa (SAR altuagoa)

10 g-ko SAR-muga: 2,0 W/kg.

SAR balioak: Burua: 0,793 W/kg. Gorputz-ehuna: 1,180 W/kg (5 mm-ko tarte).

## Lege-informazioa

Gailu hau EBko estatu guztietan erabil daiteke.

Kontsultatu gailua erabiliko duzun tokiko arauak, tokikoak nahiz estatukoak.

Mugikor honek murriztua du eraikin-barruko erabilera; soil-soilik erabil daiteke 5150-5350 MHz-eko maiztasun-tartean, herrialde hauetan:

AT	BE	BG	HR	CY	CZ	DK	
EE	FI	FR	DE	EL	HU	IE	
IT	LV	LT	LU	MT	NL	PL	
PT	RO	SK	SI	ES	SE	UK	

Hargailua: 2. kategoria

Ziurtatu korrante-egokigailuak IEC/EN 62368-1eko 6.4.5 klausulako baldintzak, eta tokiko eta estatuko araudiaren arabera probatu eta onartu dela.

## Maiztasun- eta potentzia-bandak

Telefono mugikor honek maiztasun-banda hauek ditu EBN, eta irrati-maiztasuneko potentzia maximoa.

GSM 900: 35 dBm

GSM 1800: 32 dBm

UMTS banda 1/8: 25 dBm

LTE banda 1/3/7/8/20/28/38/40: 25,7 dBm

5G banda NR n1/n3/n7/n28/n77/n78: 26 dBm

Bluetootha: 20 dBm

Wifia, 2,4 GHz-eko banda: 20 dBm

Wifia, 5 GHz: 5150-5250 MHz, 20 dBm; 5250-5350 Mhz, 20 dBm; 5470-5725 MHz, 20 dBm; 5725-5825 MHz, 14 dBm

NFC: 13,56 Mhz < -17,6 dBuA/m 10 m-ra.

## FCCren arauak

Gailu honek betetzen du FCCren araudiaren 15. atala. Erabili ahal izateko, bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ezin du interferentzia kaltegarriak eragin, eta (2) gailu honek jasotako interferentzia guztiak onartu behar ditu, baita nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketen interferentziak ere.

Telefono mugikor hau probatu egin da, eta B motako gailu digitalen mugak betetzen ditu, FCCren araudiaren 15. atalari dagokionez.

Muga horien helburua da arrazoizko babesa ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurrean.

Ekipo honek irrati-frekuentziako energia igortzen eta erabiltzen du eta erradia dezake, eta, jarraibideen arabera instalatzen eta erabiltzen ez bada, irrati bidezko komunikazioetan interferentzia kaltegarriak sor ditzake.

Hala ere, instalazio zehatz batzuetan interferentziak sortuko ez diren bermerik ez dago. Ekipo honek interferentzia kaltegarriak sortzen baditu irratiaren edo telebistaren seinalea jasotzean (hori egiaztatzeko, ekipoa piztu eta itzali egin behar da), erabiltzaileari neurri hauetako bat edo batzuk erabiltzea gomendatzen diogu interferentzia horiek zuzentzeko:

- Aldatu antena hartzailearen orientazioa edo kokapena.
- Utzi tarte handiagoa ekipoaren eta hargailuaren artean.
- Ez konektatu ekipoa hargailua konektatuta dagoen zirkuitu bereko korrante-hartune batera.
- Irrati/telebista gaietan aditua den banatzaile edo teknikari bati laguntza eskatu.

## Irrati-maitasunen esposizioari buruzko informazioa (SAR)

Gailu honek betetzen ditu irrati-uhinekiko esposizioari buruzko lege-eskakizunak. Irrati-maitasuneko (IM) energiarekiko emisio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta eginda dago gailu hau. Haririk gabeko gailuen esposizio-arauak SAR izeneko neurri-unitatea erabiltzen du (absortzio espezifikoaren tasa, ingelesez specific absorption rate).

FCCren arauak gomendaturiko SAR-muga 1,6 W/kg da. Gailu hau gorputzetik gertu erabiltzeari dagokionez, FCCk irrati-maitasunarekiko esposizioari buruz jarritako arauak betetzen ditu (gorputzetik 1,5 cm-ko gutxieneko tartearekin eta metalik gabeko osagarriekin erabiltzeari dagozkionak). Ez da frogatu ez ziurtatu metalak dituzten gorputzeko osagarriak erabiltzean irrati-maitasuneko esposizioari dagozkionak betetzen direnik; beraz, halako gorputzeko osagarriak erabiltzea saihestu behar da. Gailu honekin gorputzean erabiltzen den edozein osagarri gutxienez 1,5 cm-ra eduki behar da.

## FCCren oharra

Aldaketak egin badira eta adostasunaren alde erantzuleak espresuki onartu ez baditu, ekipoa erabiltzeko baimena gal dezake erabiltzaileak.

## Etiketa elektronikoa

Gailu honek ziurtagiriari buruzko informazioa ematen duen etiketa elektronikoa bat du.

Etiketa hori ikusteko, sakatu Ajustes > Sobre el teléfono > Certificación, edo hautatu Ajustes, eta, ondoren, idatzi «Certificación» bilaketa-barran.

Modeloa: M2002J9G

2002 zenbakiak adierazten du produktu hau 2020ko otsailetik aurrera merkaturatuko dela.

## Erantzukizunen deskargua

Erabiltzailearen eskuliburu hau Xiaomik edo haren tokiko filialak argitaratu du. Xiaomik beharrezkoak diren hobekuntzak eta aldaketak egin ditzake Erabiltzailearen eskuliburu honetan, edozein unetan eta aurrez jakinarazi gabe, arrazoi hauengatik: akats tipografikoak, informazioaren zehaztasunik eza edo programen eta/edo ekipoen hobekuntzak. Baina aipatutako aldaketa horiek Erabiltzailearen eskuliburu honen hurrengo edizioetan erantsiko dira. Erreferentzia guztiak adibide gisa erabiltzeko dira; baliteke esku artean duzun telefonoaren berdinak ez izatea.

Smartphone hau Corning® Gorilla® Glass  
Sekin diseinatuta dago.

**CORNING**  
**Gorilla® Glass**



Manufacturer: Xiaomi Communications Co., Ltd.  
Manufacturer postal address:  
#019, 9th Floor, Building 6, 33 Xi'erqi Middle Road,  
Haidian District, Beijing, China, 100085 Brand:  
MI Model: M2002J9G ©  
Xiaomi Inc. All rights reserved.

